

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5564

*1332/2021 EBAZPENA, urriaren 14koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Josefina Arana Basterrechea andrea hautatzen baita Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Zuzendari lanpostua betetzeko.*

Aztertua izan da Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko uztailaren 20ko 939/2021 Ebazpenaren bidez argitaratu zen, 2021eko abuztuaren 30eko EHAA (172. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira. Haien baldintza profesionalak jasotako merezimenduen arabera baloratu dira.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Josefina Arana Basterrechea andrea deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela eta, Zuzendaritza Nagusiak honako hau

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Josefina Arana Basterrechea andrea izendatzea Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2021eko urriaren 15etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 14a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.